

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Sondikako Udala**

Sondikako udalerrian pertsonen enplegua sustatzeko laguntzak emateko oinarriak eta deialdia oneste (2020ko abenduaren 16an izandako ohiko batzarreko akordioa).

Sondikako Udalak Sondikako udalerrian pertsonen enplegua sustatzeko laguntzak emateko oinarriak eta deialdia onesteko prozedura ireki du. Prozedura aztertuta eta Udal Teknikariaren txostenarekin bat etorritz, Udalbatzak, 2020ko abenduaren 16an aho batez,

ERABAKI DU:

Lehenengoa: Sondikako udalerrian pertsonen enplegua sustatzeko laguntzak emateko oinarriak eta deialdia onestea.

Bigarrena: Kontu-hartzaitzak deialdia argitaratu beharko du Dirulaguntzen Datu-base Nazionalen eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 20.8 artikulua araber.

Sondikako Elizatean, 2021eko otsailaren 5ean.—Alkatea, Xabier Zubiaur Agirre

**SONDIKAKO UDALERRIAN ENPLEGUA SUSTATZEKO LAGUNTZEN
PROGRAMAN SARTZEKO DEIALDIA.****1. Deialdiaren helburua**

Oinarri hauen xedea da Sondikako udalerrian erroldatuta dauden eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu eskatzaile gisa izena emana duten langabeen kontratazioa sustatzeko eta errazteko norgehiagoka erregimenean laguntzak emateko baldintzak arautzea.

2. Erakunde onuradunak

Deialdi honetan aurreikusitako laguntzen onuradun izan daitezke enpresa, profesional edo erakundeak, haien forma juridikoa edozein dela ere, baldin eta bertan ezarritako baldintzetan egiten badituzte lan kontratuak eta honako baldintza eta betekizun hauek betetzen badituzte:

- a) Egoitza soziala eta fiskala Bizkaian izatea edo lantokia bertan errotua izatea.
- b) Enpresako Langileen Legezko Ordezkaritzari (LLO) deialdi honen babesean kontratatzeako asmoaren berri ematea, kontratu mota, kontratazio aldia eta bete beharreko lanpostua adierazita. Enpresak berariaz adierazi beharko du eskabidean, langileen legezko ordezkaririk ez badu.
- c) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.
- d) Dirulaguntzen arloan itzulketa betebeharrak ordainduta izatea.
- e) Dirulaguntzak edo laguntza publikoak lortzea eragozten duen zehapen administratiborik edo penalik ez edukitzea, ezta horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik ere, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen edo Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasun eraginkorrerako martxoaren 30eko 3/2007 Lege Organikoaren arabera sexuan oinarritutako bereizkeria egin izanagatik gertatutakoak barne.
- f) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 13.2 eta 13.3 artikuluetan aurreikusitako gainerako egoeretan ez egotea.

Ezingo dituzte dirulaguntza hauek jaso:

- Administrazio Publikoek, elkarte publikoek eta horiei lotutako edo horien mendeko erakundeek.
- Enplegu Zentro Bereziek.
- Aldi baterako lan enpresek, langileak aldi baterako kontratatzea beste enpresa bati lagatzeko bada.

Pertsona edo erakunde onuradunek laguntza hauen programan parte hartzen duten bitartean bete beharko dituzte baldintza horiek.

3. Diruz lagun daitezkeen ekintzak

Deialdi honen babesean laguntza jaso ahal izango dute 3 hilabeteko edo hortik gorako iraupen mugagabeko kontratuak edo aldi baterakoak, baldin eta Bizkaian kokatutako lantokietako lanpostuak betetzeko badira eta 4. artikuluan aurreikusitako baldintzak betetzen dituzten pertsonekin egiten badira.

Deialdi honen babesean diruz lagundu daitezkeen kontratuak lan legeriarekin bat datorren edozein kontratu modalitatearen arabera formalizatu ahal izango dira, honako hauek izan ezik: prestakuntzarako eta ikaskuntzarako kontratuak, praktikako kontratuak, aldiakako kontratu finkoak eta aldi baterako laneko enpresek enpresa erabiltzaile bati lagatzeko langileekin egindako kontratuak, betiere deialdi honetan ezarritako gutxieneko iraupena duten aldi baterako kontratuak edo kontratu mugagabeak badira eta honako baldintza hauek betetzen badituzte:

- Kontratazioak kontratatutako pertsonaren profilerak egokitutako lanpostuetarako izan beharko du.
- Kontratuak idatziz formalizatu beharko dira, eredu ofizialaren arabera, eta berariaz adierazi beharko dira langilearen prestakuntza eta/edo kualifikazio profesionala, kontratuaren hasiera data eta, hala badagokio, amaiera data, kontratuaren iraupena, lanaldia eta beteko den lanpostua.



- Kontratazioak enplegu sorrera garbia ekarri beharko du berarekin, kontratatutako pertsona lanean hasi aurreko 3 hilabeteetan enpresan dagoen batez besteko plantilla osoari dagokionez.
- Kontratuak lanaldiaren %100ekoak izango dira.
- Laguntzaren azken zenbatekoak ezingo du izan kontratatutako pertsonen soldata kostuen (kontratu amaierako kalte-ordainak barne) eta enpresaren Gizarte Segurantzaren kostuen %75 baino handiagoa.
- Oinarri hauek Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera eman beharko zaie hasiera kontratuei, 2021eko uztailaren 30era arte.

4. Deialdi honen babesean kontratatutako pertsonen baldintzak

Deialdi honen bitartez kontratatutako pertsonen baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Sondikako udalerrian errolatuta egotea, etenik gabe, gutxienez 6 hilabeteko antzinatearekin, dirulaguntzaren xede den kontratuaren datatik zenbatzen hasita.
- Langabezian egotea eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu eskatzaile gisa izena emanda egotea kontratua hasten den egunean, alta egoera administratiboan.
- Profil profesional egokia edukitzea kontratuaren helburu den lanpostua betetzeko.
- Ez izatea enpresaburuaren edo enpresaren kontrola dutenen, zuzendaritza karguak dituztenen edo sozietatearen forma juridikoa duten enpresetako administrazio organoetako kideen ezkontidea, ondorengoa edo ez edukitzea odol bidezko edo ezkontza bidezko bigarren mailara arteko (hori barne) ahaidetasun harremanik haiekin.

5. Baliabide ekonomikoak

Deialdiaren zuzkidura ekonomikoa 20.000,00 eurokoa izango da guztira, «Enpresei» izeneko 430.471 aurrekontu partidaren kargura, kontrataziorako 10 dirulaguntza emateko.

6. Laguntzen zenbatekoa

Deialdi honek 10 laguntza ditu, 2.000,00 eurokoa bakoitza.

7. Beste laguntza batzuekiko bateragarritasuna.

Deialdi honetan aurreikusitako laguntzak bateraezinak izango dira beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batzuek kontzeptu eta helburu bererako emandako beste edozein dirulaguntza edo laguntzarekin.

8. Eskaeren aurkezpena

Erakunde bakoitzak gehienez ere hemen definitutako kontrataziorako bi dirulaguntzarako eskaera aurkeztu ahal izango ditu. Ezingo dira bi dirulaguntza eskaera egin langile berarekin, ez erakunde berak, ez deialdi honetan bertan erakunde desberdinek.

Kontrataziorako laguntza eskaera, eskatutako dokumentazioarekin batera, oinarri hauek Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik 2021eko irailaren 30era arte aurkeztu ahal izango da.

a) Lekua eta ordutegia

Dirulaguntzaren eskabidea eta dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko dira:

- Sondikako Udalaren egoitza elektronikoaren bitartez.
- Sondikan, Goronda Gane bidean dagoen Sarrera erregistroan, astelehenetik ostiralera 9:00etatik 14:00etara.

b) Aurkeztu beharreko dokumentazioa

Entitate interesdunek «Enpresak parte hartzeko eskabidea» aurkeztu beharko dute, oinarri hauek I. eranskineko ereduaren arabera, eta dokumentazio hau aurkeztu beharko dute nahitaez:

- Enpresaren IFKren kopia.
- Enpresaren eraketa eskritura, enpresaren estatutuak eta legezko ordezkariaren botereen egiaztapena.



- Legezko ordezkartzaren NANaren kopia eta, hala badagokio, ahalordetze eskritura.
- Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiri eguneratua.
- Enpleguaren sorrera garbiaren erantzukizunpeko adierazpena (II. eranskina).

c) *Zuzenketa edo gabeziak:*

Eskabideak oinarri hauetan eskatutako baldintzak betetzen ez baditu, osorik ez badago edo akastuna bada, interesdunari hamar eguneko epea emango zaio akatsa zuzentzeko edo aginduzko agiriak aurkezteko, eta adieraziko zaio, hala egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan aurreikusitako moduan ebazpena eman ondoren.

9. Ponderazio irizpideak

Dirulaguntzetarako aurkezten diren eskaerak puntuazio handienetik txikienera arteko erlazioa ezartzeko zehaztu den irizpidearen arabera baloratuko dira. Era honetara:

- Bi puntu, enpresa edo enpresaren lantokia Sondikako udalerrian badago.
- Puntu bat, enpresa edo enpresaren lantokia Txorierrri eskualdeko udalerriren baitan badago: Loiu, Derio, Zamudio, Lezama eta Larrabetzu.
- Berdinketa izanez gero, erregistro zenbakiaren arabera arinen aurkeztu den eskaerak izango du lehentasuna.

10. Prozedura

a) *Azterketa eta ebaluazioa*

Eskabideak tramitera onartu eta gero, eskatutako baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren, horien balorazioa egingo da, horien artean lehentasun hurrenkera bat ezartzeko, 9. oinarrian ezarritako ponderazio irizpideen arabera, eta irizpide horiek aplikatuta baloraziorik onena lortu dutenei esleitzeko proposatuko zaie, finantzatzeko funtsak agortu arte.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Araudia onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 63. artikulua arabera, itxarote zerrenda bat sortuko da, lortutako puntuazioaren arabera ordenatuta eta, hala badagokio, aurkeztutako hurrenkeran, oinarri hauetan ezarritako baldintzak beteta ere deialdian ezarritako kredituaren gehieneko zenbatekoa gainditzen delako aintzat hartu ez diren eskabideekin, gerakinak egonez gero Enpresa onuradunek dirulaguntzari uko egiteagatik edo ezarritako baldintzak ez betetzeagatik, organo emaileak, deialdi berririk egin beharrik gabe, itxaron zerrendako ordenaren arabera dirulaguntza emateko aukera izan dezan, kreditua agortu arte.

Ebazpen proposamena ebazteko eskumena duen organoari helaraziko zaio, berariaz adieraziz eskatutako dirulaguntza eman edo ukatu den, hau da, Sondikako Udaleko Alkatetzari.

b) *Ebazpena*

Aipatutako proposamena ikusita, Sondikako Udaleko Alkatetzak ebazpena emango du.

Langabeak edo enplegarritasuna hobetzeko diharduten pertsonak kontratatzeko dirulaguntzen ebazpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Udaleko iragarki taulan argitaratuko da, eta eskatzaileei jakinaraziko zaie, adierazten direlarik dirulaguntzaren zenbatekoa, ordaintzeko modua eta dirulaguntzaren justifikazioa.

Ebazpenak ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea 2021eko urriak 31 izango da. Epe hori igarota, dirulaguntzaren eskabidea onartutzat hartuko da, aurretik ez bada berariazko ebazpenik ematen.

Deialdi honi dagozkion izapideak arintzeko, laguntzen eskatzaileek helbide elektroniko operatibo bat eduki beharko dute gaituta, izapideak irauten duen bitartean, dokumentazioa aurkeztean atzemandako akatsak zuzentzeko edo eskatutako laguntzak modu arin eta eraginkorrean ebazteko beharrezkoa den beste edozein errekerimendu egiteko, legean ezarritako moduan.



Sondikako Udaleko Alkatzaren ebazpenak amaiera ematen dio administrazio bideari, eta, horren aurka, berraztertze errekurtsoa aurkez dakioko organo horri, hila-beteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez daiteke Bilboko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

11. Laguntza ordaintzea

Laguntzak ordaintzea bakarrean ordainduko dira, kontratazioa egin dela justifikatu eta dirulaguntza emateko eskatzen diren baldintzak bete eta gero, dirulaguntza emateko baldintzak egiaztatze ezartzen diren kontrolak alde batera utzi gabe.

Horretarako, erakunde onuradunak deialdi honen 12. oinarrian zerrendatutako dokumentazioa aurkeztu beharko du.

Dirulaguntza ez da ordainduko, baldin eta eskatzaileak justifikatu gabe badu justifikazio epea amaituta duen dirulaguntzaren bat. Era berean, ez da ordainduko, baldin eta eskatzaileak aurreko dirulaguntzaren bat itzuli ez badu, hala eskatu eta gero.

12. Justifikatzeko agirien aurkezpena

Laguntza horiek justifikatzeko eta haien helburua betetzeko, dirulaguntzaren onuradunak jotako eskabidea aurkeztu duten erakundeek beren kontratazioak egiazkoak direla egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dituzte lau hilabeteko epean, kontratazioaren hasieratik zenbatzen hasita eta 2021eko abenduaren 16ra bitartean, oinarri hauetan jasotako baldintzak betez

a) *Lekua eta ordutegia*

Kontratazioaren frogagiriak era honetara aurkeztuko dira:

- Sondikako Udalaren egoitza elektronikoaren bitartez.
- Sarrera erregistroan, Sondikan, Goronda Gane bidean, 1. zenbakian, astelehene-tik ostiralera 9:00etatik 14:00etara.

Justifikatzeko dokumentazioak oinarri hauetan eskatutako baldintzak betetzen ez baditu, osatu gabe badago edo akastuna bada, interesdunari eskatuko zaio hamar eguneko epean akatsa zuzentzeko edo nahitaezko agiriak aurkezteko, eta adieraziko zaio, halaber, hala egiten ez badu, ez-betetzat joko dela eta dirulaguntza itzul dezan ebartzeko dela.

b) *Aurkeztu beharreko agiriak*

Erakunde interesdunak kontratazioaren justifikazioa egin beharko dute, egiaztariak aurkezteko ereduaren bidez, eta honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

- Dokumentazioa aurkezteko eredu (III. eranskina), behar bezala beteta.
- Alderdiak sinatutako lan kontratuaren kopia, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari kontratazio horri buruz egindako jakinarazpen telematikoaren ziurtagiriarekin batera.
- Kontratutako pertsonaren NANaren edo AIZaren kopia, Lanbideren DARDE Eskararen Alta eta Berritze Agiria, indarrean kontratuaren datan.
- Kontratutako pertsonaren errolda ziurtagiria.
- Kontratutako pertsonaren lan bizitzaren txostena (gutxienez kontratatu aurreko 3 hilabeteak eta kontratatu ondoko eguna hartzen dituena).
- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan kontratua hasi aurreko azken 3 hilabeteetan izena emanda igarotako aldien ziurtagiria.
- Dirulaguntzaren xede den kontratuaren jakinarazpena enpresaren legezko ordezkariari, behar bezala sinatua, edo enpresaren legezko ordezkariari ez dagoela dioen adierazpena, halakorik ez badago (IV. eranskina).
- RLC, RNT eta nominak diruz lagundutako epean ordaindu izanaren ziurtagiriak.
- Zinpeko adierazpena, non adieraziko baita kontratatutako pertsona ez dela ezkontidea, ondorengoa edo ez duela odol ahaidetasunik edo ezkontza ahaidetasunik,



bigarren mailara artekorik, enpresaburuarekin edo enpresa kontrola dutenekin, zuzendaritza karguak dituztenekin edo sozietatearen forma juridikoa duten enpresetako administrazio organoetako kideak direnekin (V. eranskina).

- Diruz lagundutako kontrataziorik ez dagoela dioen erantzukizunpeko adierazpena (VI. eranskina).
- Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean dituela egiaztatzen duten ziurtagiri eguneratuak.
- GSDNaren ziurtagiria, kontratazioaren aurreko 3 hilabeteetan batez besteko plantillari dagokiona.
- Hirugarrenen altaren fitxa, banku zenbakiaren titulartasuna justifikatzeko. (VII. eranskina).
- Memoria ofizial laburtua, kontratazio kostuak barne. (VIII. eranskina).
- Dirulaguntza honen xedea justifikatzeko behar den beste edozein informazio.

Jasotako frogagiri guztiak aztertu ondoren, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Udalaren iragarki taulan argitaratuko da langabeak kontratatzeagatik emandako laguntzen behin betiko zerrenda.

13. Onuradunaren betebeharrak

Dirulaguntza hauen erakunde onuradunek betebeharrak hauek izango dituzte:

- Oinarri hauetan eskatzen diren baldintza guztiak betetzea.
- Laguntza honen kargura jasotako dirulaguntzei buruz fiskalizazio eginkizunak betetzean eskatzen zaion informazioa ematea.
- Hitzartutako baldintzetan izandako edozein aldaketaren edo kontratazioaren ondoren sortutako arazoek berri ematea unean-unean.
- Gainera, diruz lagundutako laguntzarekin lotuta, egoki irizitako ikuskapen guztiak egin ahal izango dira.

14. Ez betetzea eta laguntza itzultzea

Jasotako zenbatekoak itzuli egin beharko dira, bai eta dirulaguntza ordaintzen den unetik dagozkien legezko interesak eskatu ere, baldin eta onuradunek deialdi honetan, dirulaguntza emateko ebazpenean eta aplikatzekoak diren gainerako arauetan ezarritako baldintzak betetzen ez badituzte; hori guztia, ez-betetzearen ondorioz bidezkoak diren ekintzak alde batera utzi gabe.

Sondikako Udaleko Alkatetzaren ebazpen bidez adieraziko da betetzen ez dela, eskatzailea kanpoan utzi dela, dagozkion laguntzak itzuli egin behar direla eta jasotzeko dauden laguntzak jasotzeko eskubidea galdu dela.

15. Datu pertsonalen babesa

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera, Sondikako Udalak jakinarazten du oinarri hauek izapidetzea eragin duen dokumentazioan agertzen diren datu pertsonalak Sondikako Udala titular den fitxategi batean sartuko direla, kontratazioarako laguntzen deialdi hau kudeatzeko helburuarekin.

Nolanahi ere, interesdunari informazioa ematen zaio eta baimena ematen du bere datuak aipatutako helbururako tratatzeko, bai eta aholkularitzei, erakunde publikoei, fundazioei, elkartei edo finantza erakundeetara lagatzeko ere, enplegu politika aktiboak kudeatzeko, lan merkatuan bitartekotza egiteko eta lan merkatuari buruzko azterlanak eta analisiak egiteko.

16. Azken xedapena

1. Laguntzen deialdia «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.
2. Erakunde interesdunek eskubidea aurkezteak haren oinarriak erabat onartzea dakar.

**I. ERANSKINA****ENPRESAK PARTE HARTZEKO ESKABIDEAREN EREDUA**

ENPRESAK PARTE HARTZEKO ESKABIDE ORRIA, SONDIKAKO UDALERRIAN
ERROLDATUTAKO LANGABEAK KONTRATATZEKO LAGUNTZA PROGRAMAREN
DEIALDIAREN ESPARRUAN-2020. URTEA

..... jaunak/andreak (NAN
zk.: bere izenean edo enpre-
saren (adierazi ordezkari ahalmenak) gisa (IFK: eta egoitza soziala:
..... PK:, udalerrria: telefo-
noa:).

BERE ERANTZUKIZUNPEAN ADIERAZTEN DU:

I. Sondikako udalerrian erroldatutako pertsonen kontratazioa bultzatzeko laguntzen deialdiaren esparruan kontrataziorako laguntza proiektuen Oinarri Arautzaile berrien edukia berri izan duela.

II. Ordezkatzen duen erakundeak betetzen dituela aipatutako oinarrietan eskatutako betekizun eta betebeharrak guztiak, eta berariaz hartzen dituela bere gain oinarrietan jasotako betebeharrak guztiak.

III. Aipatutako oinarriari atxikitzea eskatzen duela, honako ezaugarri hauek dituen kontratazioa diruz laguntzeko:

- Lanpostua (1):
- Kontratu mota:
- Hasiera data:
- Kontratuaren iraupena:
- Lanaldia:
- Jardueraren sektorea:

(1) Adierazitako lanpostuak bat etorri behar du lan kontratuan jasotako lanpostuarekin.

«Enpresak parte hartzeko eskabide orri» honekin batera, honako agiri hauek aurkeztu dira:

- Enpresaren IFKren kopia.
- Legezko ordezkariaren NANaren kopia eta ahalordetze eskritura, hala badagokio.
- Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketetan egunean egotearen ziurtagiria.
- Enplegu sorrera garbiaren erantzukizunpeko adierazpena (II. eranskina).

Lekua, data, sinadura eta zigilua



II. ERANSKINA

**ENPLEGU SORKUNTZA GARBIARI BURUZKO
ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREDUA**

SONDIKA UDALERRIAN ERROLDATUTAKO LANGABEAK KONTRATATZEKO
LAGUNTZEN DEIALDIAREN ESPARRUAN «ENPRESAK PARTE HARTZEKO ESKABIDEAN»
AURKEZTUTAKO KONTRATAZIOETAN ENPLEGU SORKUNTZA GARBIAREN BETEKIZUNAK
BETETZEARI BURUZKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA-2020. URTEA

..... jaunak/andreak (NAN
zk.: bere izenean edo enpre-
saren (adierazi ordezkari ahalmenak) gisa (IFK: eta egoitza soziala:
..... PK:, udalerrria: telefo-
noa:).

BERE ERANTZUKIZUNPEAN ADIERAZTEN DU:

Oinarri hauetan araututako laguntzak eskatzen diren kontratazioak berarekin dakarrela enpresan dagoen batez besteko plantilla osoaren gainean enplegu garbia sortzea, diruz lagundutako kontratua- ren xede diren pertsonak lanean hasi aurreko 3 hilabeteetan enpresan dagoen batez besteko plantilla osoarekiko.

Lekua, data, sinadura eta zigilua

**III. ERANSKINA****EGIAZTAGIRIAK AURKEZTEKO EREDUA**

EGIAZTAGIRIEN AURKEZPENA «ENPRESAK PARTE HARTZEKO ESKABIDEAN»,
SONDIKAN ERROLDATUTAKO LANGABEAK KONTRATATZEKO LAGUNTZA
PROGRAMAREN DEIALDIAREN ESPARRUAN-2020. URTEA

..... jaunak/andreak (NAN
zk.: bere izenean edo enpre-
saren (adierazi ordezkari-tza ahalmenak) gisa (IFK: eta egoitza soziala:
..... PK:, udal-erria: telefo-
noa:).

Honako dokumentazio hau erantsi da:

- NANaren kopia, Lanbideko alta agiria eta LEABD Eskaera Berritzeko agiria, eta kontratatutako pertsonaren errolda ziurtagiria.
- Dirulaguntzaren xede den kontratuaren kopia.
- Nominak, RNT eta RLC, emandako laguntza justifikatzen duen aldiaren arabera.
- Dirulaguntzaren xede den kontratuaren jakinarazpena enpresaren legezko ordezkari-tzari, behar bezala sinatua, edo enpresaren legezko ordezkari-tzarik ez dagoela dioen adierazpena, halakorik ez badago (IV. eranskina).
- Zinpeko adierazpena, non adieraziko baita kontratatutako pertsona ez dela ezkontidea, ondo-rengoa edo ez duela odol ahaidetasunik edo ezkontza ahaidetasunik, bigarren mailara arteko-rik, enpresaburuarekin edo enpresa kontrola dutenekin, zuzendaritza karguak dituztenekin edo sozietatearen forma juridikoa duten enpresetako administrazio organoetako kideak direnekin (V. eranskina).
- Diruz lagundutako kontrataziorik ez dagoela dioen erantzukizunpeko adierazpena (VI. eranskina).
- Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean dituela egiaztatzen duten ziurtagiri eguneratuak.
- GSDNk emandako ziurtagiria, gauzatutako kontratazioaren aurreko 3 hilabeteetan batez bes-teko plantillari dagokiona.
- GSDNk emandako ziurtagiria, kontratazioaren egun bereko batez besteko plantillari buruzkoa.
- Hirugarrenen altaren fitxa, banku zenbakiaren titulartasuna justifikatzeko. (VII. eranskina).
- Memoria (VIII. eranskina).
- Eskatzen den beste edozein.

Lekua, data, sinadura eta zigilua



IV. ERANSKINA

**SONDIKAKO UDALERRIAN ERROLDATUTAKO LANGABEAK
KONTRATATZEKO LAGUNTZA PROGRAMAREN 2020. URTEKO DEIALDIAREN
ESPARRUAN LLO JAKINARAZPENA AURKEZTEKO EREDUA**

Honen bidez jakinarazten da enpresak langileen legezko ordezkariak jakinarazi diela kontratazioa (NAN zk.:), egunean, kontratatzeke balizko laguntza bati lotuta.

JASOTZE AGIRIA:

.....jauna/andrea, IFZ: duena, gisa (kargu sindikala1) eta langileen legezko ordezkariaren izenean erakunde honetan (edo helbide hau duen lantoki honetan):

LLOren sinadura

Data: .../.../...

(1) Enpresa Batzordeko Lehendakaria/Idazkaria, Langileen Ordezkaria, edo Atal Sindikalen Ordezkariak.

Ez dago langileen legezko ordezkariarik Enpresan

Enpresaren sinadura

Data: .../.../...



V. ERANSKINA

**AHAIDETASUNIK EZARI DAGOKION ERANTZUKIZUNPEKO
ADIERAZPENAREN EREDUA**

SONDIKAKO UDALERRIAN ERROLDATUTAKO LANGABEAK KONTRATZEKO
LAGUNTZA DEIALDIAREN BARRUAN (2020. URTEA), DEIALDIRA AURKEZTUTAKO
KONTRATAZIOETAN AHAIDETASUNIK EZ EGOTEAREN BETEKIZUNA BETETZEKO
KONPROMISOARI BURUZKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

..... jaunak/andreak (NAN
zk.: bere izenean edo enpre-
saren (adierazi ordezkari ahalmenak) gisa (IFK: eta egoitza soziala:
..... PK:, udalerria: telefo-
noa:).

BERE ERANTZUKIZUNPEAN ADIERAZTEN DU:

Oinarrietan araututako laguntzez baliatuz kontratatu nahi diren pertsonak ez direla ez ezkontideak, ez ondorengoak, eta ez dutela bestelako odol edo ezkontza ahaidetasunik –bigarren mailarainokorik– eskabidea egiten duen enpresako enpresaburuarekin, edo enpresaren kontrola dutenekin, zuzendaritza karguak dituztenekin edo administrazio organoetako kideekin, eta ez dela, halaber, aipatutako horietakorik.

Lekua, data, sinadura eta zigilua



VI. ERANSKINA

**GAINFINANTZAKETARIK EZ IZATEARI BURUZKO
ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREDUA**

«ENPRESAK PARTE HARTZEKO ESKAERAREN ESKABIDEAN» SONDIKAKO
UDALEAN ERROLDATUTAKO LANGABEAK KONTRATATZEKO LAGUNTZEN PROGRAMAN
(2020. URTEA) GAINFINANTZAKETARIK EZ IZATEARI BURUZKO
ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

..... jaunak/andreak (NAN
zk.: bere izenean edo enpre-
saren (adierazi ordezkari ahalmenak) gisa (IFK: eta egoitza soziala:
..... PK:, udalerria: telefo-
noa:).

BERE ERANTZUKIZUNPEAN ADIERAZTEN DU:

«Enpresak Parte hartzeko Eskabidean» adierazitako kontratazioetan ez dela izan eta ez dela izan-
go inolako gainfinantzaketarik, eta hitz ematen du adierazpen honen helburu diren alderdietan gora-
beherarik izanez gero, berariaz eta idatziz aitortuko dituela.

Lekua, data, sinadura eta zigilua



VII. ERANSKINA

HIRUGARRENAREN ALTA FITXAREN EREDUA

«ENPRESAK PARTE HARTZEKO ESKABIDEAN», SONDIKAKO UDALEAN ERROLDATUTAKO LANGABEAK KONTRATATZEKO LAGUNTZEN PROGRAMAN (2020. URTEA), BANKETXEKO KONTU ZENBAKIAREN TITULARTASUNA JUSTIFIKATZEKO HIRUGARRENEN ALTA FITXA

Hartzekodunaren agiria
Ficha Acreedor

Hartzekodunak bete beharreko datuak / Datos a cumplimentar por la parte acreedora
Izena eta deitura bi edo Sozietatearen izena / Nombre y dos apellidos o Razón Social
Helbidea / Domicilio
Herria / Población
Provincia / Provincia
PK / CP
NAN - IRC / DNI - CIF
Telefonoa / Teléfono
Fara / Fax
e-mail
(ugar) (año) (mes) (día)
n, 20 (e)ko k
Hartzekodun edo ahalduaren sinadura; / Firma de la parte acreedora o apoderada

Banka helbideratzeak / Domiciliaciones bancarias
1 Jarraian aipatuko den kontua badagoela ziurtatzen dugu, eta titularra goian adierazitakoa dela.
Certificamos la existencia de la cuenta a continuación referenciada, cuya persona titular es la arriba indicada.
Zergaren sarrara edo itzulketa helbideratu nahi duzun finantza erakundea: /
Entidad financiera en la que desea domiciliar el ingreso o devolución del impuesto:
IBAN kodesa / Código IBAN
E S
Herria / Población
Provincia / Provincia
PK / CP
(ugar) (año) (mes) (día)
n, 20 (e)ko k
Sinadura eta banketxearen zigilua / Firma y sello de la entidad bancaria

2 Jarraian aipatuko den kontua badagoela ziurtatzen dugu, eta titularra goian adierazitakoa dela.
Certificamos la existencia de la cuenta a continuación referenciada, cuya persona titular es la arriba indicada.
Zergaren sarrara edo itzulketa helbideratu nahi duzun finantza erakundea: /
Entidad financiera en la que desea domiciliar el ingreso o devolución del impuesto:
IBAN kodesa / Código IBAN
E S
Herria / Población
Provincia / Provincia
PK / CP
(ugar) (año) (mes) (día)
n, 20 (e)ko k
Sinadura eta banketxearen zigilua / Firma y sello de la entidad bancaria

Agiri hau alia edo aldarazpenik dagoenetan bakarrik erabiliko da. / Este documento se utilizará únicamente en los casos de alta o modificación.
Nahian edo IFIaren fotokopia erantsi behar da. / Debe adjuntarse fotocopia del DNI o en su caso del CIF.
Bi kontu baino gehiago duen hartekodunak izatekotan, erantsi beste inprimaki bat. / Caso de parte acreedora con más de dos cuentas: añadir otro impreso.

Datu pertsonalak habesteko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betez, Ekonomia eta Ogasun Sailak jakinarazten dizu, dokumentu honen bitartez jarri dituzun zure datu pertsonalak fitxategi automatizatu batean sartuko ditugula, ondoren, erabili ahal izateko. Aipatutako Lege horretan jasotzen den moduan, datuek izuzi, zuzendu edo erabatu nahi dituzula edo ez dituzula jarri nahi adierazteko, honako helbide honetara jo dezakezu:

En cumplimiento de lo dispuesto de la Ley Orgánica 15/1999 de Protección de Datos de Carácter Personal, el Departamento de Economía y Hacienda, le informa que sus datos personales obtenidos mediante la cumplimentación de este documento, van a ser incorporados para su tramitación en un fichero automatizado. Si lo desea, puede ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición, previstos por la Ley.

Lekua, data, sinadura eta zigilua



VIII. ERANSKINA

AZKEN MEMORIAREN EREDUA

SONDIKAKO UDALERRIAN ERROLDATUTA DAUDEN LANGABEAK
KONTRATATZEKO LAGUNTZA PROGRAMAREN DEIALDIAREN
(2020. URTEA) AMAIERAKO MEMORIA

ENPRESA KONTRATATZAILEAREN DATUAK

Eskaeraren sarre- ra data	IFK	Enpresaren izena	Titularren enpresa	Titularren NAN	Udalerria

KONTRATATUKO PERTSONAREN DATUAK

Kontratuaren hasiera data	Kontratuaren amaiera data	NAN	Izen-abizenak	Kontratutako pertsona erroltatutako udalerria

DIRULAGUNTZAREN XEDE DEN KONTRATUAREN DATUAK ETA SOLDATA KOSTUA

Kontratuaren hasiera data	Kontratuaren amaiera data	Lanpostua	Dirulaguntzaren zenbatekoa	Soldata kostua	GSDN kostua	Kontratu amaie- raren kalte-ordai- naren kostua	Kostua guztira (Soldata kostua + GSDN kostua + Kontratu amaie- raren kalte-ordainaren kostua)

Lekua, data, sinadura eta zigilua